

Isabel Etxelservia

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

## Paris eta koloniak

**A**zken asteetan, frantses estatuak arazo berri bati ekin behar izan dio. Frantziarrenak omen diren uharteetan, greba orokorra ekarri duen mugimenduaren eskakizunei entzungor gelditu ostean, Parisek urrats guztiak eman ditu, hau ustelduko zelaren esperantzarekin.

Hastapenetik, militar gehiago igorri eta, prentsaren bitartez, mugimenduaren ordezkarien gutxiesten saiatu dira. Greba hasi eta hilabetea geroago, uharteetan karrikako giroa salatzen hasi dira. Hedatu nahi zuten mezua zen bortizkeria pizten ari zela, jendea bedur zela hitz egiteko, hainbestetan Korsikako kasuan aipatzen duten *omerta* delakoa Guadaluperen modan ezarri dute. Hau guztia sindikalista bat hil arte. Sindikalista bat, Jacques Bino, LKPeke ordezkaria, bidean zegoen, traba batean gelditua, hil zutelarik.

XXI. Mendean, frantses estatua- ren menpe dagoen lurralde batean sindikalista bat erori da, herritarren ordezkari bat. Ez ditu horrek sindikatu “handiak” inarrosi! Badakigu alta, miliziak daudela. Hilketak horren ondotik sei pertsona atxilotuak izan dira, baina baliteke hilketak horren inguruko galdera asko erantzunik gabe gelditzea. Kolonietan gertatzen dena itzalpean gordetzen badaki Parisek.

Gobernuak greba orokorrarekin bukatu nahi izan balu berehala negoziaketak bultzatuko zituen. Beste bide bat hautatu du. LKPk



GAIZKA IROZ

Frantziako Gobernuaren ildoari lasaitasun handiarekin erantzun du. Herritarren nahikeria determinatua ez zuten inon espero. Frantses prentsak uharteetan arazo larriak daudela ikasi du, beharturik, elkarrizketak eskaintzen hasi da, Parisko karriketari agertzen ari zen elkartasun manifestaldiei oihartzun egiteko Internetek, haatik, Guadalupen eta Martinikan sortu den mugimendu sozialaren oinarri identitarioari, gazteek jasaten duten diskriminazioari oihartzuna eman die.

Guadalupeneko gizartea esklabutza eta kolonialismoan oinarritutako gizartea da eta hori sufritzen du oraindik. Nahiz eta diplomak izan, gazteek ez dute lanposturik lortzen. Garapen ekonomikoa ez da herritarren %80engana heldu. Arrazismoa? Kolonia. Estatuko idazkariak Guadaluperentzat autonomia aipatu du, Parisek aterabide guztiak ezagutzen baititu bere burua babestu behar duelarik. Prefektak negoziaketak bururatuak direla dio, MEDEFen (Entrepresen Mugimendua) gehiengoak akordioa ez duelarik izenpetu eta LKPren ahotsaren gaitetik, alegia greba orokorrarekin bukatu behar dela eta zalan-tzarik gabe, mehatxu doinuarekin.

Guadalupe, eta beharbada beste uharteak ere, bihurgune batean daude. Erakutsi duten mobilizatzeko gaitasuna eredu da guretzat, bereziki hemen Ipar Euskal Herrian autonomia eskatzen dugularik. ■

«  
Guadalupen erakutsi duen mobilizatzeko gaitasuna eredu da guretzat, bereziki hemen Ipar Euskal Herrian autonomia eskatzen dugularik  
»

## TXANDAN

Amatiño



Begoña Berrogei urte daramatza

petrolio-sektorean eta laster erretiratze-kotan dago. Orain dela hogeiren bat urte aurreratua zioten ez zuela bertan jubilatzerik izango, petrolio dezente lehenago ahituko zela koan. Baina, honez gero, bera lehenago etxeratuko da petrolio bururatu baino. Hain zuzen, zenbait adituk dienez, oraindik ere barrena beste berrogei urterako erreserbak geratzen omen dira... egungo teknologiaz.

## Petrolio amaigabea

Bada esaten duenik, ordea, petrolio ez dela sekula santan amaituko. Edo, Yamani jekeak

duela edozein urte argi asko adierazi bezala: “Harri Aroa ez zen amaitu harriak bukatu zirelako eta petrolio-aroa ez da amaituko petrolio bukatuko delako”.

Bai, azken belaunaldi biak kontrakoa esaten aritu izan diren arren, petrolioak betikoz iraungo du. Gizakiak ez dio petrolio erabiltzeari utziko petrolio agortuko delako, beste hainbat energia-mota berriagoak, garbiagoak, aproposagoak eta, baita merkeagoak ere, aurkituko direlako baizik. Harriekin gertatu zen legez. ■